

MALADETA

IDEIAK ETA AMETSAK

"Gaua badator eta laster frontaletako argiak piztu beharko ditugu berriz. Gure aurrean Punta d'Albako gailurra eta Maladetako mendilerroa ageri dira arratsaldeko azken argiekin. Remuñe isilik dago, eta zeruan izarrak ageri dira. Gaua da Pirinioetako bailara sakonetan, poza eta nekea, hain efimeroa ez den zoriontasun batekin nahasten diren momentuan." Remuñeko bailara, 2016ko abuztuaren 8ko 21:30ak.

TESTU ETA ARGAZKIAK



Unax Otegi Altolagirre

Mendia eta mendirekin zerikusia duten aktibitate gehienak ditu gustuko. Erronka zalea da, baina inguruneaz eta naturaz gozatzeko aukera ematen duten irteera lasaia ere atsegin ditu. Pirinioak ditu gogoko eta jarduera gehienak bertan burutzen ditu.



2016ko abuztuan, Gorkarekin batera, Perdiguero mendilerroko hirumilako guztiak kateatzea lortu genuen 38 ordu iraun zituen ibilaldi luze eta gogor baten ostean. Irteerako azken partean, Remuñe bailaratik behera gentozela, nire aurrean ageri zen Maladetako mendilerroari begiratzen nion behin eta berriz. Zaila da ametsak noiz eta nola sortzen diren asmatzea. Agian, Maladetako hirumilako guztiak kateatzeko ideia momentu horretan bertan sortu zen.

46 hirumilako bata bestearen atzetik eta geldiunerik gabe igotzeko proposamena nahikoa deigarria da eta, badauka bere izanean ero-

tasun puntu bat ere. Jende askok, zertan ari nintzen galdetzen zidanean, barre egiten zuen erantzuna entzun ostean. Ezin da ukatu komikoa ere izan daitekeenik, eta horregatik, nik ere barre egiten nuen beraiekin, ez bainekien halako zerbait egiteko gai izango nintzen edo ez.

Maladetak ohikoa dena baino hirumilako gehiago ditu, 46 gailur hain zuzen ere

Maladeta mendimultzoaren ikuspegi orokorra Vallibiernatik



Dena den, Perdiguero ko irteeraren ostean, esperientzia handia irabazi genuen halako ibilbide luze bat planifikatu, prestatu eta aurrera eramateko garaian. Eta Maladetako proiektua askoz zailagoa izango zela iragarri genezakeen arren, barneko senak esaten zidan, merezi zuela proiektuari denbora eskaini eta aukera desberdinak aztertzea ezer erabaki aurretik. Horrela, gutxika, hasierako ideia, amets bilakatzen joan zen.

BIDE BILA

"Gaur bukatu ditut ikuskapen lan guztiak. Irteera prest daukat eta badakit zehazki nondik nora joango naizen. Hainbeste urtez lan egin ondoren, badirudi azkenean begi onez ikusi nauela, eta Maladetak bere sekretu guztiak erakutsi dizkit. Eguraldi ona noiz etorriko zain nago, etxeko lehoitik lxeiako mendiei begira gaurko eguna iluntzen ari den bitartean. Goiko aldean, gailurretatik gertu, haizeak lainoak bultzatzen ditu." Cerler, 2021eko abuztuaren 8ko 21:15ak.

Maladeta, Pirinioetako mendilerro konplexu netakoa da. Bertan daude hirumilako altuenak, baita zailtasun handienekoak ere. Beste mendilerro askotan ez bezala, hirumilako hauek guztiak granitozko geruza baten gainean kokatuta daude, eta arrazoï horregatik, gailurretarako ibilbidea, zati handi batean behintzat, granitozko blokeen gainean egin beharra dago.

Beste mendilerroekin alderatuta Maladetak badu beste berezitasun bat ere; ohikoa dena baino hirumilako gehiago ditu, 46 gailur hain zuzen. Hirumilako hauen banaketa oso irregularra da, noranzko desberdina daukaten ertzetan kokatuta baitaude. Horren ondorioz, oso zaila da bata bestearekin kateatuko dituen ibilbide erraz bat asmatzea, eta ibilbidearen diseinua izan zen hain zuzen, buruhauste gehien eragin zizkidan faktorea.

Aurretik inor ibili gabeko guneetan ibili behar izan nuenez, ohikoak direnak baino arrisku handiagoak hartu nituen

Patxi Termenonen laguntzarekin buru belarri ekin genion lan honi, eta ideia desberdinak proposatu eta aztertu genituen denbora luzez. Zalantza asko izan ondoren, azkenean Patxik aurkeztutako planteamenduari heldu genion. Ibilbide zirkularra sinplea eta erakargarria zen neurri handi batean, baina era berean, ondo aztertu eta begiratu beharreko tarte ezezagun



ERTZ AMAIGABEA

“Arratsaldeko hirurak aldera, Anetoko gailurrera iritsi naizenean, ibilbideko eta Pirinioetako puntu gorenean nago. Azken orduak zirrargarriak izan dira, Salenques (Ixalenques) eta Tempestades (Tuca Grand de Llosàs) ertzak eskalatu ditut eta direnak eta ez direnak egin behar izan ditut behin eta berriz granitozko blokeen gainean, nire oinpean ageri ziren amildegi infinituak saihesteko.” Aneto (3404 m), 2021eko abuztuaren 13ko 15:00ak.

Irteera egin aurreko egunak urduritasun handikoak izan ziren. Uda guztian zehar, egun nahasiak, haize gogorak, ekaitzak, lainoak, eta hotza izan ziren nagusi eguraldiaren pronostikoetan. Desesperazioz begiratzen nituen inongo hobekuntzarik ez zerkarten aurreikuspenak, eta, egunak aurrera zihoazen.

Azkenenean, abuztuaren erdialdean aukera txiki bat azaldu zen, eta birritan pentsatu gabe Llauset aldera joan eta lehen saiakera bat egitea erabaki nuen. Urtegi aparkalekuan lo egin ostean, goizeko 06:30ak aldera ekin nion bideari abuztuaren 13an. Ibilbidea hiru zati edo fase desberdinetan banatzea erabaki nuen, psikologikoki eramangarriagoa izan zedin. Lehen parte honetan, helburu nagusia, mendiaz eta ibilbideaz gozatzea izango zen, eta horretarako, inongo nekerik eragingo ez zidan erritmo lasai bat hartu nuen. Lau orduren ostean, lortu nuen lehen hirumilakora igotzea, Tuc de Mulleresera, eta gero hortik Salenques (Ixalenques) aldera abiatu nintzen.

eta ilun asko zituen. Apustu arriskutsua zen, baina beste aukerak ez ziren hobeak.

Guztira hiru urte behar izan nituen bidea ondo aztertu eta zehazteko, eta Benasquen hiru uda pasa ostean, 27 irteera egin nituen helburu horrekin. Oztopo nagusia, eta hasieratik proiektuaren bideragarritasuna baldintzatu zuena, Tuca de Mulleres eta Forca Estasen lotzen dituen tartearen definizioa izan zen. Irteera desberdinak egin behar izan nituen bide egoki bat bilatu ahal izateko. Irteera hauetan, aurretik inor ibili gabeko gunetan ibili behar izan nuen, ohikoak direnak baino arrisku handiagoak hartu nituen, batez ere kalitate eskaseko harriarekin topo egin nuelako. Bi urteko lanaren ostean, arazo honi irtenbide egoki bat aurkitu nionean, lehen aldiz, proiektuari itxaropenez begiratu nion.

Gero, gutxika-gutxika, Patxik diseinatutako bidean zeuden puntu ilun guztiak argitzen joan ziren, uste nuena baino hobeto kasu askotan. Azkenean, Maladetak, xehetasun txikienetan ere, baikortasunez eskaini zizkigun irtenbide onenak.

Artelana bukatu berri duen artistaren gisan begiratzen nion planteamenduari behin eta berriz. Bagenekien ezer gutxi hobetu zitekeela. Proiektu honen inguruan zerbaitek meritua izan, eta neurri batean harro sentitzeko arrazoiak eman badizkit, hauxe izan da. Eszena-tokia prest geneukan, baita gidoia ere, orain, niri zegokidan ibilbidea aurrera eraman eta antzezlanaz aurkeztea.

Salenques ertzean, jarraitu beharreko bideari begira



Direnak eta ez direnak egin behar izan ditut nire oinpean ageri ziren amildegi infinituak saihesteko

Rimaya lepoan atzean utzi eta gailurrerian aurrera





Llaset lakutik Vallibierna aldera dagoen ikuspegi ederra

Mugimendu guztiak era automatikoan burutzen nituen, erabaki kontzienteen beharrik gabe

Bi ordu beranduago, ibilbideko zailtasun nagusiak hasten ziren puntuan nengoen, Salenques (Ixalenques) ertzeko pitzatutako granitozko plakaren azpian. Hemendik aurrera, Punta d'Alba gailurrerainoko bidea, bukaez-

na dirudien ertz zirrargarri baten gainetik doa, eta nire kalkuluaren arabera hamar bat ordu behar izango nituen alde batetik bestera zeharkatzeko. Asmo horrekin, arratsaldeko lehen orduetan ekin nion ibilbideko pauso zail eta bertikalenak eskalatzeari. Gero, granito blokeak, atakak eta gailurrak pasa nituen, bata bestearen atzetik, alde bietara erortzen ziren amildegiei arreta handirik jarri gabe. Likenek zauriak eragiten zizkidaten behatz puntetan, eta egarria, elurtegietatik zetorren urtutako

urarekin baretu nuen. Noizean behin, gelditu eta paisaiari eta gailurrei argazkiak ateratzen nizkien.

Ertza luzea da, 13 bat kilometro ditu. Azken urteetako entrenamenduetan behin baino gehiagotan ibilia nintzen bertan, eta gune desberdinak ondo barneratuta neuzkanez, mugimendu guztiak era automatikoan burutzen nituen, erabaki kontzienteen beharrik gabe. Prestakuntza fisikoak, teknikoak eta psikologikoak, bidearen ezagutza maila honekin



ageri ziren. Bakar-bakarrik nengoen granitozko paisaia antzu eta basati hartan, eta atzean utzi berri nituen mendiei begiratzen nienean, poza eta euforia sentitzen nituen.

GAUA

“Kanala kontu handiarekin eskalatzen ari naiz. Frontalaren argi artifizial eta eskasak ez dit uzten harriaren fidagarritasuna ondo aztertzen, eta horregatik ohikoak direnak baino arreta-neurri handiagoak hartzen ari naiz. Kanaleko irteerako pauso delikatuaren ondoren, oinez irabazi dut gailurrerainoko bidea. Han behean frontalak ikus ditzaket, Yolanda eta Gorka dira. Piztu eta itzali egin ditugu, aurretik adostutako gure morse seinaleak izan dira. Gero, talkia hartu eta beraiekin kontaktuan jarri naiz, Haurillonoko gailurrean nagoela esan diet.” Haurillon orratza (3075 m), 2021eko abuztuaren 14ko 01:15ak.

Gauean, zure unibertso guztia, frontalak argitzen dituen hiru metroan batzen da, haratago iluntasuna besterik ez dago

Bigarren parteko helburu nagusia gaua pasa eta egunsentia ikustea izango zen. Nekeak eta logurak harrapatzen ez baninduen, eta nonbaiten gelditu beharrik ez banuen, lehenago edo beranduago egunsentia etorriko zen, eta orduan irteera bukatzeko probabilitateak handiak izango zirela banekien. Punta d’Albako jendarmetik jaitsi ostean, gelditu eta zerbait afaltzeko proposamen finkoa egin nion nire buruari, ordu asko baineramatzan baraurik. Ezin liteke esan gose nintzenik, baino elikagaiak behar nituen eta afaria ezinbestekoa zen estrategia orokorraren barruan. Granitozko bloke baten gainean eseri nintzen. Zeru ilunean izar distiratsuak ageri ziren eta haiei begiratzen nien, gazta eta txorizodun esne opila jaten nituen bitartean. Momentu hura nostalgiarekin gogoratzen dut orain, zoriontasunez bizi izan nuelako agian.

Gero, berriz ekin nion bideari. Gauean, zure unibertso guztia, frontalak argitzen dituen hiru metroan batzen da, haratago iluntasuna besterik ez dago. Hiru metro horietan granito blokeak besterik ez ziren ageri. GPS-ak adierazten zuen norabidea mantendu beharra neukan, eta horregatik, blokeen gainean orekak egiten nituen bitartean, ibilbidean zuzenketak egin behar nituen behin eta berriz.

Gorantzago doa bidea, norabidea zuzendu beharra daukazu. Orain berantzago doa... joder! eta orain, berriz gorantza... Askok urrundu zara bidetik eta trakaren gainera bueltatu beharra daukazu. Gaueko bakarrikzeta eta errutina aspergarriak... Azkenean, bideak, ilunean galdutako mendizale batek egindako trazaren itxura dauka, edo granitozko itsasoan galduta dabilen naufragio bakartiarena. Cregüña eratzek orratzek monotonia eta aspergarritasun hartatik atera ninduten neurri handi batean, eta gero, Aragüells igo ondoren, Coronaseko aintziretara jaitsi nintzen. Goizeko 04:30ak inguruan, Yolanda eta Gorka zeuden lekura iristea lortu nuen.

Momentuz alferrikakoa zen aurrera jarraitzea eta gelditu beharra neukan goizeko egunsentira arte. Bi ordu pasa nituen Gorka eta Yolandarekin, ez dut gogoan zertaz aritu ginen hizketan, baino atsegina izan zen beraiekin egotea. Egunsentiko lehen Llosaseko orratzak argitu zituzten momentuan utzi nituen, eta bideari ekin nion berriz, granito blokeen gainean, bakarrik eta isilik.

Maladetak bakarrik eman dizkit itzaropenak urte hauetan guztietan. Bera beti ondo portatu izan da nirekin, ondoegi

Anetoko gurutzeta udako egun hotz batean



bat egiten dutenean sortzen den armonia be-rezi honek lagundu zidan gandor gainean arin eta segurtasun handiarekin ibiltzen.

Eguzkiak zeruan marrastan zuen parabola-aren atzetik nindoan, gauak noiz eta non harra-patuko ninduen ondo asmatu ezinik. Arratsaldeko azken argiek paisaia kolore epelekin margotu zuten, eta ilunabarrean Punta d’Albako gailurre-ra iritsi nintzen, uste nuena baino bi ordu lehenago. Beheko parteeetan ikusi nitzakeen bailarak ilunpean zeuden dagoeneko, misterioz beteta



Margalida, Tempestades eta atzean Russell

GRANITO BLOKEAK

“Nire aurrean Maladeta ageri da bere osotasunean, eta poztasunez begiratzen diot. Dena eginda dagoen momentu honetan ez naiz auzartzen ospakizun handirik egiten. Izan ere, azken urteetan unibertso guztia nire proiektuaren aurka konspiratzen ibili denaren sentipena sakon barneratuta daukat oraindik. Ni, oztopo eta zailtasun guztien gainetik ibili naiz ahaleginetan, bakarrik eta obsesio handiaren kasu askotan, agian burutu ezina zen ideia zoro baten atzetik. Maladetak bakarrik eman dizkit itxaropenak urte hauetan guztietan. Bera beti ondo portatu izan da nirekin, ondoegi. Bion arteko maitale istorioa izan da hau, eta maitasunez begiratzen diot orain behatoki honetatik.” Tuca de las Culebras (3053 m), 2021eko abuztuaren 14ko 16:00ak.

Azken partean granito blokeak izango ziren protagonista, aurretik izan ez baziren behintzat. Beraien gainean ibiltzeak badi-tu bere berezitasunak. Askotan blokearen egonkortasuna zapaldu aurretik iragarri daiteke, baina beste batzuetan, geldirik ego-

tea espero duzun blokea mugitu egiten da bat-batean, eta orduan, erreakzio azkar batek bakarrik eragotzi dezake erorikoa. 30 orduko ibilbidearen ostean, erreakzio azkar horiek bideratzen dituzten erreflexuak oso gutxituta egon ohi dira eta, horregatik, zortea ere nire aldeko izan beharko nuen ondorengo orduetan. Eta banekien horrek eragina izango zuela alderdi psikologikoan, estres edo urduritasun moduan.

Goizeko lehen orduetan igo nituen Llosás ertzeko orratzak. Eguzki errainuek hegoaldean ageri zen Vallibiernako gailurra argitu zuten lehenik, eta gero, intentsitate handiarekin, kontraste nabari eta atseginak sortu zituzten orratzetako granito ilun eta zorrotzen gainean. Oreka eta pausu delikatu ugari egin behar izan nituen Tchiahtcheff orratzetik jais-teko, ez zen erraza izan fidagarritasun gabeko harri hauskorren gainean ibiltzea. Behera iris-tea lortu nuenean, ibilbideko zailtasun guztiak gaitzituak nituen momentuan, ez nuen poztasun berezirik sentitu. Oraindik gauza asko gerta zitezkeela banekien eta hobe zen serio-tasun kutsua zuen hoztasuna mantentzea.

Hortik aurrerako bidea luzea eta gogorra izango zen. Desnibela, distantzia eta blokeak, granito blokeak denbora guztian. Goiz osoa behar izan nuen Russell (Tuca d’el Cap de la Vall) gailurretara iritsi ahal izateko eta horiek igo osten, Vallibierna aldera jo nuen. Ura edan eta ka-feinadun gel bat hartzeko bakarrik gelditu nintzen lepora iritsi nintzenean. Momentu horretan mendizale bat azaldu eta inori egiten ari nintzenaren berri ez emateko ahalegina bertan bera

Tuca de Culebres gailurrean, ondo egindako lanak eragindako poztasuna ezin ezkutatu



gelditu zen nondik nentorren galdetu zidanean. Gezurra ere esan niezaiokeen, baino dagoeneko ez zuen merezi. Hizketan gelditu ginen.

Alpinismoa ere arte efimeroa da, sortzen den momentu berean desagertzen dela diote

Azkenengo igoera egin ostean, laurak inguruan iritsi nintzen ibilbide luze honetako azken hirumilakora, Tuca de Culebrasera. 34 orduko ibilbidearen ostean, ez nuen ez nekerik ez logurarik sentitzen baina ametsa eta errealitate ondo bereiztea kostatzen zitzaidan, "atzo" edo "gaur" noiz gertatu ziren bereiztea baino gehiago agian, niretzako pertzepzio horiek guztiak gauza berdina baitziren momentu horretan, era nahasian ageri zitzaizkidan.

Ibilbidea errazegia izan zela esatea harrozeria bat izango litzateke, baino planifikazioak eta prestakuntzak abenturari protagonismoa kendu ziotela ukazezina zen. Agian zailtasun gehiago beharko nituen, distantzia edo desnibel gehiago, ziurgabetasun handiagoko momentuak, eguraldi txarra, esaterako. Alpinismoaren esentzian dauden ezaugarri horiek gabe, ezingo nuke egindakoa beste munduko ezer izan zenik esan, baina hala ere oso pozik nengoan, benetan zoriontsu, urte askotako lanaren eta sakrifizioen arrazoari zentzua jarri berri nielako.

Behatz punta guztiak odoletan nituen, baino malkorik ez begietan. Alpinismoa ere arte efimeroa da, sortzen den momentu berean desagertzen dela diote. Norberaren izaeraren espresioa, ikusle gabeko antzezlanak kasu honetan. Idatzietan, bizi izandakoaren konstantzia utzi nahi izaten dugun arren, badakigu, narrazioa, errealitatea eta bizipenaren islarako alferrikako ahalegina izango dela. Bitartean, arratsaldeko haize epel eta leunak, Llauseteko belardiak kulunkatzen zituen eguzki errainuek uraren gainean distirak sortzen zizuten momentuan, eta urrunean, Vallibierna ageri zen, arratsaldeko argien horizontean.

INFORMAZIO GEHIAGO:



	Llauseteko Urtegia (2021/08/13)	2200m	6:42	0 h 00 min
1	Tuc de Mulleres	3009 m	10:56	4 h 14 min
2	Forca Estasen	3028 m	12:49	6 h 07 min
3	Torre de Salenques	3111 m	13:23	6 h 41 min
4	1º Resalte de Salenques	3127 m	13:31	6 h 49 min
5	2º Resalte de Salenques	3148 m	13:39	6 h 57 min
6	Margalida	3251 m	13:57	7 h 15 min
7	Tempestades	3289 m	14:16	7 h 34 min
8	Punta Brecha de Tempestades	3272 m	14:28	7 h 46 min
9	Espalda de Aneto	3348 m	14:55	8 h 13 min
10	Aneto	3404 m	15:09	8 h 27 min
11	Aguja Daviu	3364 m	15:17	8 h 35 min
12	Aguja Escudier	3343 m	15:24	8 h 42 min
13	Punta Oliveras-Arenas	3305 m	15:54	9 h 12 min
14	Aguja del Collado de Coronas	3228 m	16:30	9 h 48 min
15	Pico Coronas	3298 m	16:39	9 h 57 min
16	Pico del Medio	3349 m	16:56	10 h 14 min
17	Punta Astorg	3354 m	17:21	10 h 39 min
18	Pico Maldito	3354 m	17:26	10 h 44 min
19	Aguja Schmidt-Endell	3335 m	17:33	10 h 51 min
20	Abadías	3279 m	18:20	11 h 38 min
21	Maladeta	3312 m	18:40	11 h 58 min
22	Pico Collado de la Rimaya	3265 m	19:00	12 h 18 min
23	Pico Cordier	3266 m	19:21	12 h 39 min
24	Pico Le Bondidier	3153 m	19:43	13 h 01 min
25	Pico Sayó	3211 m	20:04	13 h 22 min
26	Pico Mir	3185 m	20:12	13 h 30 min
27	Punta Delmás	3158 m	20:21	13 h 39 min
28	Muela de Alba	3111 m	20:41	13 h 59 min
29	Diente de Alba	3136 m	20:46	14 h 04 min
30	Pico del Alba	3112 m	21:24	14 h 42 min
31	Aguja de Alba	3054 m	21:42	15 h 00 min
32	Aguja Haurillon	3075 m	1:15	18 h 33 min
33	Aguja de Cregüena	3043 m	1:50	19 h 08 min
34	Aguja Juncadella	3021 m	2:32	19 h 50 min
35	Pico de Aragüells	3048 m	3:15	20 h 33 min
36	Aguja Franqueville	3061 m	7:23	24 h 41 min
37	Aguja Tchihatcheff	3045 m	7:58	25 h 16 min
38	Aguja Argarot	3036 m	8:17	25 h 35 min
39	Aguja SW Russell	3192 m	10:20	27 h 38 min
40	Punta Brecha Russell	3195 m	11:29	28 h 47 min
41	Russell	3205 m	11:48	29 h 06 min
42	Russell SE	3206 m	11:57	29 h 15 min
43	Aguja superior Russell	3146 m	12:14	29 h 32 min
44	Punta Russell Oriental	3034 m	12:48	30 h 06 min
45	Vallibierna	3059 m	15:48	33 h 06 min
46	Tuca de las Culebras	3053 m	15:55	33 h 13 min
		2200m	18:28	35 h 46 min